

Balorezko proposamena:

→ *Zein behar edo arazo konpontzen duzue? Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?*

Minbiziari buruz hitz egiteko orduan, beti esan da zenbat eta lehenago detektatu orduan eta hobeto. Gu gailu honekin minbizi-zelula hauek detektatzeko aukera izango dugu, gaixotasuna garaiz aurkitzeko eta aukera gehiago izateko hura tratatzeko.

Gailu honek bizitza ugari salba ditzake, minbizia aurreratua dagoenean aurkitzen bada, zailagoa izaten da hura gainditzea eta gailu honek, garaiz aurkitzeko segurtasuna ematen du.

→ *Zerez osatuta dago?*

Sistema uhin elektromagnetikoen teknologian oinarritzen da.

Larruazalaren bidez iristen dira gailura, telefono mugikor baten antzeko potentzia erabiliz.

Gailu hori txertatzea segurua da osasunerako, laborategietan egin dituzten probetan oinarrituta; eta emisio-mailak giza osasunerako segurutzat jotzen direnak baino txikiagoak direla ondorioztatu dute.

Gainera, bateriak kargatzeko hari gabeko sistema bat du, uhin elektromagnetiko mota bat erabiliz.

→ *Beste alderdi batzuk:*

Erosle bakoitzarentzat txip pertsonalizatua sortzeak guztira 500 euroko kostua izango luke, txiparen iraupena batez beste 10 urtekoa dela giza gorputzean kontuan hartuta, baina txipa eskuratzea eta ezartzea gizarte segurantzak estaliko luke.

→ *Diseinua:*

Txipak material biobateragarri egindako kapsula baten barruan sartzen dira. Xiringa baten bidez besoan txertatzen dira, zehazki, larruazalean injektatzen dira, odol-hodietara iritsi gabe.

